


Kinpart⁵²

www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2012ko
MARTXOA





txinpart⁵²

www.hautzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hautzaro informatzen.....	4
Euskararen txokoa	10
Hatzak bete lan	14
Gu ere kazetari	36
Nahaste borrate	42

ARGITARATZAILEA

Hautzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

☎ 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Neguko hotzaren uzta ederrak

Kaixo berriz ere , irakurle:

Urtaroen erritmoa jarraituz goaz ikasturtean aurrera; udazkena eta negua igaro ditugu eta jada udaberrian sartu gara: azken hiruhilekoa, ikasturteko azken txanpa, ibilaldiak, alaitasuna...

Bide horretan ikasturte honetako bigarren alea osatu dugu, eta negu partean egindako zenbait lan erakusgarri jaso ditugu bertan.

2012 urte hasiera hau ez da guztiontzat berdina izan ikastolaren familian, urtarrilaren 14ko ezbeharrak ilundu baitzuen urte hasiera: "Gogoan zaitugu June" eta merezitako tarte eskaini nahi izan dizugu Txinparten ale honetan. Eta aurrekoetan bezala, elkarrekin aurrera jarraituko dugu.

Badakizu irakurle, hemen duzu neguko uzta, eta gure ustetan, EDERRA.

Irakurriz gozatu
eta
gozatuz irakurri!





June

Garcia Saez

**“June jaso muxu bat zure masailetan,
berriz elkar gaitezen gure ametsetan”**

(Alaia Martin)



Arrieta Aldean ezagutu genuen elkar. 5 hilabete zenituela etorri zinen gure artera, ttikia, politta eta pixkorra. Zure begi handiekin dena ikusi nahi zenuen, dena entzun, dena ukitu eta dastatu. Erne—erne egoten zinen inguruan gertatzen zen guztiaz jabetu nahian.

Poliki-poliki katuka ikasi zenuen eta haur eskolako txoko zein zirrikitu guztiak miatuz aritzen zinen hara eta hona. Gustukoen ipuinen txokoa zenuen noski, eta sofa berdean eserita egoten zinen, patxadan, beti lasaitasunaren bila.



Haur eskolako eraikin berrian hastearekin batean ikasi zenuen oinez, ttipi-ttapa-ttipi-ttapa zure ttikitasunean aurrera egin zenuen.

Baina, hasi orduko amaitu egin zaizu bidea, eta “agur” esan behar izan dizugu. Gogorra izan da guretzat agurra, mingarria. Hasieran sinesgaitza egin zitzaigun gertaera, ondoren, samina sentitu genuen, eta orain, egunerokotasunean zuk utzitako hutsuneari aurre egin behar izaten diogu.

Zure apaltasuna, zure patxada eta zure irria bihotzean eramango ditugu nonahi goazela ere gure June-ttiki mattia.

“... ttikia izanik, asko maite zaitut nik...”

Garbiñe, Naiara eta Agurtzane



Eskolako Agenda 21 BIOANIZTASUNA programa

“Naturaren oinarritzko unitateak ekosistemak dira. Horrez gainera, ekosistema Unibertsoaren atal nagusietakoa dela esan daiteke, gure planetaren mailarik altuena azaltzen duen sistema baita. Biosfera bera ere, osotasunean hartuta, ekosistema bat da, ekosistemarik handiena, ekosistema guztien elkarreaginez osatua. Ekosistema erraldi horren aberastasuna adierazteko biodibertsitate edo bioaniztasun hitzak erabiltzen ditugu. Bioniztasunaren beharraz hitz egiten dugunean, beraz, aberastasun horretaz ari gara, eboluzioan zehar lortu edo metatu den aberastasun genetikoaz eta ekosistemek duten aberastasuna kontserbatzeaz.

Gizakiok ezinbestekotzat hartu beharko luke bioaniztasuna zaindu eta kontserbatzea, jakina.*

*: Ostadar: Biologia-Geologia, DBH-4. mailako
Nola funtzionatzen dute ekosistemek? unitatetik moldatua.

MOTIBAZIO SAIOAK

Goiko testuak azaldutako kontzeptuaren ildotik, aurreko Txinparten alean adierazi bezala, aurtengo Eskola Agenda 21 programan Oiertzungo haranean dugun bioaniztasunaz jabetu eta hura zaindu eta kontserbatzeko bigarren ebaluazioan zehar beste urrats bat eman dugu; hau da, gaiarekiko MOTIBAZIO saioak antolatu ditugu.

Ikastolako Agenda 21eko taldeak antolatu eta Mendi Enarako Jon Ander Galarraga adituaren eskutik ikastolako ikasle guztiek laborategian saio interesgarri eta aberatsaz gozateko aukera eduki genuen. Jon Anderrek ikasleen adinari egokitutako aurkezpena eskaini zigun.



Edozein sistematik gertatu bezala, elementu bakoitzaren beharra dugu, sistemak osotasunean funtziona dezan.

Motibazio-saioak amaitu eta inauteriak igaro ondoren, SENTSIBILIZAZIO-saioak antolatu genituen, hala nola ikasleok gaiaz egindako hainbat PANEL eta kanpainarako LOGOA sortzeko lehiaketa.



hurrengo ikasturteko Matrikulazioak

HH, LH eta DBHko matrikulazioaren lehen fasea, garrantzitsuena dena, egin dugu joan den hiruhileko honetan. Ondorengo egutegian agertzen den moduan eskaerak egiteko epea, guk matrikulazio epea deitzen dioguna, urtarrilaren 30etik otsailaren 10era egin dugu. Baina ez da bukatu, Hezkuntza Sailak jartzen duen prozesu guztia ondoren datorrena da.

Eskaerak aurkezteko epea:

2012ko urtarrilaren 30etik otsailaren 10era.
Aukeratutako lehengo ikastetxean baino ez dira entregatuko eta ikastetxe honek erabakitako ordutegian.

Eskatzaileen zerrenda argitaratzeko:

2012ko otsailaren 16an

Behin-behineko zerrendak argitaratzeko:

2012ko martxoaren 9an

Behin-behineko zerrendei erreklamazioak egiteko:

2012ko martxoaren 21era arte

Eskabideari uko egiteko:

2012ko martxoaren 21era arte

Behin betiko zerrendak argitaratzeko:

2012ko martxoaren 28an

Zerrendak argitaratzeko (2. eta 3. aukerak):

2012ko martxoaren 30ean

Behin betiko zerrendei gora jotzeko errekurtsuak jartzeko:

2012ko apirilaren 30era arte

Beraz, koadroan ikus daitekeen moduan, hirugarren hiruhilekoan ere, prozesuak jarraituko du.

Goian aipatutako zerrenda horiek guztiak ikusgai egongo dira eskatutako lehenengo ikastetxean.




Haurtzaro Ikastola
Denon eskura

HEZKUNTZA
berritzailea partehartzailea
ikastetzailearen KALITATEA
HEZKUNTZA
publikoa

HAURTZARO IKASTOLA
Bulego ordutegia:
8:00 - 13:00 eta 14:30 - 17:30
Tel.: 943 49 16 59
www.haurtzarolikastola.net
diartzun@ikastola.net

MATRIKULATZEKO EPEA ZABALIK
Urtarrilaren 30etik
Otsailaren 10era

Bilera orokorra: urtarrilaren 31ean, 17:30ean ikastolan.
Ate irekien jardunaldia: otsailaren 4an, 10:30ean.

ikastolenekartea



Eta zer urrats eman ditugu Haurtzaro Ikastolan?

- Urtarrilaren 31n bilera orokorra antolatu genuen. Bide batez, eskerrik beroenak gure gonbitari harrera ona egin zenioten familiei.
- Otsailaren 4an, larunbata, ikastolako ateak ireki genituen, ate irekiak deritzona antolatu genuen. Egun hotza zen, baina inguratutako familiei esker bero bezain gozoa gertatu zitzaigun.
- Eta bakarkako bilerak ere egin ditugu horrela eskatu duten gurasoekin.

Honen guztiaren ondoren esan dezakegu ikasle kopurua mantendu dugula aurren ere, eta gogotik esan dezakegu ikastolaren proiektua sendo dagoela. Guraso gehienek aukeratutako proiektua izatea da horren adierazle nabarmena.

MILA ESKER GUREGAN JARRITAKO KONFIANTZAGATIK

Eta matrikulazio kontuekin jarraituz, datozen egunetan Batxilergo-ko matrikulazio kanpaina izango dugu.

DBH 4. mailako ikasleek, Batxilergoaren bidea jarraitzeko asmoa dutenek, Oiartzon jarraitzeko aukera izango dute, eta, jakina, Haurtzaroko proiektuari jarraipena emateko aukera eskaintzen du.

BATXILERGO IKASTOLA

- Enkalduna ✓
- Kalitatezko ikasketak ✓
- Orientazio programa
- Personalizazioa ✓
- Plakaforma teknologiko berrak ✓
- Ikusgaitasuna ✓

OIARTZO IKASTOLA

Tel: 943 523 804

ATE IREKIAK MARTXOAK 20 eta 21

ETORKIZUNEKO GIZARTE EUSKALDUNA PRESTATZEN

Zemabide espazio sin 20190 Erretoria - Oreneta GIPUZKOA

Tel: 943 523 804 Fax: 943 525 462
www.oartzonikastola.net
oartzon@ikastola.net

Oiartzo

BATXILERGO IKASTOLA

Haurtzaro Ikastola

OIARTZO IKASTOLA

Ibilaldiak eta ekintzak

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 1. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 1. maila	Otsailaren 3an	Donostiara	Zinema euskaraz
LH 1. maila	Otsailaren 23an	Oñatira: Arrikutz kobazulora	Lehen gizakien bizilekua ezagutu.

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 2. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 2. maila	2011-12-02	Euskararen eguna	Euskararen eguna ikastolako partaideekin ospatu.
LH 2. maila	2011-12-05	San Nikolas eguna	Aspaldiko usadioak mantendu.
LH 2. maila	2011-12-14	Itsats-gela	Txanelako 3.gaiarekin loturiko irtenaldia.
LH 2. maila	2011-12-24	Gabon kantari	Ikastolako partaideekin ospatutako usadioa.
LH 2. maila	2012-1-11	Zientzia museoa	Txanelako 4.gaiarekin loturiko irtenaldia.
LH 2. maila	2012-1-17/19	Agenda21	Motibazio saioak.
LH 2. maila	2012-2-21	La Casa del Cafe	Txanelako 5.gaiarekin loturiko irtenaldia.
LH 2. maila	2012-2-29 / 2012-3-09	Euskaraz bizi 2. kanpaina	Jostatu euskaraz Ikastolako partaideekin.
LH 2. maila	2012-2-28 / 2012-3-29	Kiroldegira	Igeriketa saioak
LH 2. maila	2012-2-29	Azpeitiko ingurumen etxea eta tren museoa	Txanelako 5.gaiarekin loturiko irtenaldia.

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 3. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 3. maila	Martxoak 23	Donostiara	5. unitatearen proiektua burutu eta airearekin zerikusia duten artelanak behatzeaz gain, bertako artista ezagunen lanez gozatu.

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 4. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 4. maila	Urtarrilak 17	Agenda 21 Bio aniztasuna	Gaiarekin hasteko motibazio saioa.
LH 4. maila	Otsailak 3	Ikastolako jolaslekuan	Santa Agedaren ospakizuna.
LH 4. maila	Otsailak 17	Herrian eta ikastolan	Inauteriak ospatu.
LH 4. maila	Otsailak 28-29	Mailako geletan	Irakurketa dramatikoak.
LH 4. maila	Otsailak 27	Mailako 4.A gelan	Arabiaren gaineko gaiari bukaera emateko Fatimeturkin solasaldia.
LH 4. maila	Otsailaren 27tik martxoaren 9ra	Ikastolako patioan	Jolasean euskaraz
LH 4. maila	Martxoak 30	Ikastolako jolaslekuan	Jolasean euskaraz bukaerako jaialdia.



Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 5. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 5. maila	Urtarrilak 12	Donostiako San Telmo museora	Euskal Herria
LH 5. maila	Urtarrilak 25-26	Ikastolan	Eskola agenda 21: Biodibertsitatea. Motibazio saioak
LH 5. maila	Otsailak 15	Errenteriako Niessen aretora	Zinema euskaraz
LH 5. maila	Otsailak 17	Ikastolan	Inauteriak ospatzea
LH 5. maila	Otsailaren 29tik martxoaren 9ra	Euskaraz bizi 2. kanpaina	Jostatu euskaraz ikastolako partaideekin
LH 5. maila	Martxoak 13-14-15	Ikastolan bertan	Elikadura tailerra

Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 6. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 6. maila	11-12-01	Tolosara Nazio arteko Txotxongilo jaialdia	Antzerki gidoi testua ezagutu
LH 6. maila	11-12-12	Donostiara Zinema euskaraz: IRABAZLE-GALTZAILE	Tutoretzan baloreen gaia landu
LH 6. maila	12-01-12	Elorsoro-Madalensora Xiba topaketak	Bote luzera jolastu
LH 6. maila	12-01-19	Gelan Odol emaleen aurkezpena	Odol zirkulazioa gehiago ezagutu
LH 6. maila	12-01-23ko astean	Ikastolan	Eskola agenda 21: Biodibertsitatea. Motibazio saioak
LH 6. maila	Otsailak 17	Ikastolan	Inauteriak ospatu
LH 6. maila	11-02-29	Urnietako birziklatzeko planta	Lantegi batek nola funtzionatzen duen ezagutu
LH 6. maila	2012-2-29 / 2012-3-09	Euskaraz bizi 2. kanpaina	Jostatu euskaraz Ikastolako partaideekin

DBH 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1-2-3-4	Urtarrileko 3. Astea	Ikastolan	Eskola Agenda 21: Biodibertsitatea. Motibazio saioak
DBH1-2-3	Otsailak 17	Ikastolan	Inauteriak: Euskal inauterien ezagutza
DBH1	Otsaileko Lehen Astea	Donostian	Gorputz hezkuntza: Txuri Urdin izotz gaineko patinajea
DBH1-2-3-4	Otsailak 24		Bertsolari filma Euskal bertsogintzaren historia ezagutu
DBH 2-3-4	Otsaila amaiera / Martxo hasiera	Ikastolan	Heziketa afektibo sexuala Garbiñe Merino sexologoarekin
DBH4	Urtarrilak 12	Irun	Irudi biziak
DBH4	Otsailak 8	Ikastolako Areta Nagusian	DBH4. maila amaierako orientazioa J. Cabrero orientatzailearen hitzaldia
DBH4	Otsailak 17	Ikastolan	Inauteriak: Euskal inauterien ezagutza eta ikastolari azken eskaintza



EUSKARAZ BIZI EUSKARAREKIN JOSTATZEN


Bigarren hiruhileko honetan, agendak hain beterik izan ditugun honetan, Euskaraz Bizi egitasmoak izan du bere lekua eta ez nolanahikoa.

Alde batetik, urtero egiten dugun eran, hiztun neurketak egin ditugu ikasleen artean. Jasotako datuak bildu ondoren, ondorioztatu ahal izan dugu euskarak, Haurtzaro ikastolan, osasuntsu jarraitzen duela. Baina, era berean, hobetzekoak diren zenbait alderdirekin egin dugu topo: esaterako, ikasleek egunero erabiltzen dituzten erdaratiko esaldiekin; eta horiei heltzen saiatu gara, Euskara Hobe Hobe esaldietan txertatuz.

Bestetik, hain arrakastatsua izan ohi den Jostatu euskaraz, euskararekin jostatu kanpainan murgildu ginen otsailaren 27tik martxoaren 9a bitartean. Hamabostaldi horretan zehar, ahozkotatzen lantzea izan da gure helburu nagusia, jolasetan elkar animatzeko erabiltzen diren esamolde jatorrak indartuz: eman gogor!, eutsi goiari!... Girotzeko Pirritx eta Porrotxen Lotsa galdu abestia aukeratu dugu, honen leloa kanpainaren funtsarekin erabat uztartzen baita:

**E! Aizu, lagun, euskaraz mintzatu!
Entzun, lagun, lotsa galdu zazu.**





Kanpaina borobiltzeko martxoaren 30ean ikasle nahiz irakasleek parte hartzeko jolasak antolatu genituen eta bertan, landutako esamoldeak erabiltzeko parada izan genuen.


Azkenik, Oiartzungo hizkerari bultzada eman nahian, eta duela pare bat ikasturte egindako hausnarketarekin jarraitzeko, datozen ikasturteetarako ekintza-planaren ildoak osatzen ahalegindu gara eta horretarako Udaleko Euskara Batzordearekin aritu gara elkarlanean.

Euskararen alde oraindik badugu zeregina, baina baita horretan aritzeko grina ere. Izango duzue gure berri!



2012ko martxo

txinpart 52



ESKUTTUNekook buru-belarri LANEAN

Kaixo guztioi!!

Beste behin ere, Euskaraz Biziko 2. kanpainarekin bat eginez, pilota- eta futbol-txapelketak antolatu ditugu. Giro lasai eta euskaldunean jokatu dira partidak. Baina izan da lehiarik ere; emaitzak ez dira alde handikoak izan, eta gogor ekin behar izan dute jokalariek. Gainera, urtero bezala, jokalarien artean irakasleen presentzia egon da, bai pilotan eta baita futbolekin ere, eta, nola ez, horrek partiden arrakasta ziurtatzen du.

Denok zirrarez bizitu ditugu partidak, eta kanpainaren helburuari jarraituz, ez da euskaraz animatzeko esamolderik falta izan, berdinketa kasuetan, gehien animatzen zuen taldea izan baita garaile.

Jolasen kanpaina parte hartzeaz gain, bloga osatzen eta txukuntzen jardun dugu buru-belarri eta aukera hau aprobetxatuz, gure blogaren berri eman nahiko genizueke. Aurreko *Txinparten* alean aipatu genuen bezala, **eskuttun.ikasblog.net** helbidean aurkituko duzue gure bloga. Bada, bertan, hainbat informazio aurkituko duzue:



1. SARRERAK: Hasierako orrian sarrerak aurkituko dituzue. Gutxi gorabehera, astero berri bat. Bertan, kulturaren inguruko berriak, gure kanpainen inguruko informazioa... irakur ditzakezue.

2. ORRIALDEAK:

- **EUSKAL HIZTEGIAK:** euskarazko hainbat hiztegi-tarako loturak daude orri honetan.
- **EUSKARAZKO PRENTSA:** hemen, aldiz, euskarazko zenbait egunkari, aldizkari eta abarren webguneetara loturak daude.
- **KULTURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ORRIAK:** bertsolaritza, musika eta literaturarekin lotutako webguneak ikusiko dituzue.
- **OIARTZUNGO EUSKARA ELKARTEAK:** gauza jakina da ez garela Oiartzungo euskara elkarte bakarra. Beraz, orri honetan gainerako euskara elkarte ezagunenaren informazioa dago.

3. LOTURAK: Atal honetan, Haurtzaro Ikastolako hainbat orriren (Natur Zientziak, Teknologia, haurtzarolikastola.net...) link-ak daude.

Beraz, gure ustez, blog hau tresna egokia izan daiteke euskararen inguruan interesik baduzu!

ONGI IZAN!!!!

Eskuttun
<http://eskuttun.ikasblog.net/>



gazte forua

Euskararen TXOKOA



Apa gaztiak.

Berriz e hementxe txinparteko lau hitz idazten

Uste biño len kurtso erdiya pasa digu ta beste erdiya re ziztu biziyan pasako da. Jode, hau da hau belozidadia. Gue ritmua berriz ez ta hain azkarra biño ze krixto bakoitzak gue ritmua dugu. Asmua da gauzak ittia ta ez " a toda la letxe ibiltzia ". Ez iruitzen?

Oaingo lan talde politta dugu, batzuk esperientzi geyokin ta beste batzuk uantxe hasi berriyak, biño denak GOGO TA ILUSIYO HANDIYAKIN gaude ta hoi oso garrantzitsua da. Denak adin tarte difentekuk biño oso ondo moldatzen ga. Batzuk esperientziya aportatzen dute, bestik, frekkura ta ideia berriyak, ta denan artin GAZTE FORUA osatzen dugu. Aupa EKIPO!!!!!!

Azkeneko txanpan sartu ga, tita batin bukatuko dugu kurtua biño nahiz ta hoi hola izan guk badugu bai aurten ta bai hurrengo urtetan ze emana, ta ze esana. Holaxe jarraituko dugu, kaña maten ta bide batez erki pasten.

Apa jendik , hurren arte!

Kuadrillategiko Kontuak

Kaixo denai!

Gu Kuadrillategiko gazteak gara, ostiralero Iturriozko Dorretxean elkartzen gara Oiartzungo gazteak arratsaldeko 19:00etatik 21:30era. Denbora tarte horretan jolasak, ekintzak eta gure planak egiten ditugu. Horietako gehienak guk aukeratuak dira, baina beste batzuk berriz, gure hezitzaileek aukeratzen dituzte. Adibidez, mozorroak egitea, pelikulak ikustea, lehiaketak, jolasak...

Jaiegun eta egun berezietan saio bereziak egiten ditugu. Adibidez, Donostiara joan danborrada ikustera, asteburu pasak, Gabonetako afaria, eskiatzera... Bestalde, barre asko egiten dugu eta gainera euskaraz jolasten gara. Hurrengo urtean ere apuntatzeko asmoz gaude, zuen zain egongo gara.

Aio!

OIARTZUNGO KUADRILLATEGI

Amaia Cortes, Oier Mugarza, Uxue Oiarbide eta Jon Asensio.



HH1

BEGIRATU ZEINEN ONDO PASATZEN DUGUN
HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO MAILAKOEK
HEMEN INGURUKO PARKE ETA JOLASLEKUETAN!

HH1



HH2

BA AL DAKIZUE SORGINAK NOLA
PRESTATZEN DITUZTEN BEREN
EDABE MAGIKOAK? KAR, KAR, KAR...
GUK BADA KIGU!

HASTEKO, ONTZI HANDI BAT BEHAR
DUZUE, ETA HARA BOTAKO DITUZUE
OSAGAI GUZTIAK:

- ARRAUTZAK
- ESNEA
- HAUTS MAGIKOAK
(KAKAO KOILARAKADA BATZUK)
- SAGU KAKAK
(TXOKOLATEZKO KIZKURRAK)
- ZIZAREAK
(KOLORETAKO GOMINOLAK)
- IGEL BATEN BEGIAK
(GELATINA ZATIAK)

BUKATZEKO ONDO-ONDO NAHASTU
DENA IRABIAGAILUAREKIN.

MMMMMMMM! PROBA EZAZUE ETA
IKUSIKO DUZUE ZEIN GOXOA DEN.

HH2





HH3

HH3K O IK ASLEOK
MAKILAKIXK IAN TSEKIA
ANTX ESTU DUGU
PRIMERAN PASADUGU
BEGIRA ZERNOLAKO
ARTISTA GAREN.....
MOZORRO, ESSEENATDKI
ABESLARI ETA GUSTI





LH1

ARRIKRUTZEKO IBILALDIA
ARRIKRUTZ KOBAZULOAT DA.
ARRIKRUTZ ARANTZAZUREN ERDI
PAREAN DAGO KOBAZULOAN
LEHN GIZAKIAK BIZI IZAN ZIREN.
ESTALARTITA ETA ESTALARMIZ
ZEIN ZIREN IKASI GENITUEN
ETA URETAN BITXITO
TXIKIAK BIZI ZIREN ETA
ORAIN ERE LEHN GIZAKIAK
BEZALA MARGOTU
GENUEN

LH1 MAILA





LH2

Bigarren Mailakoen MOZORROA

Txanelako 4. gaiak espaziora bidaiatzea proposatzen zigunez, astronautaren kaskoa egiteko beharra sentitu dugu. Baliagarri zaizuelakoan, hona hemen kaskoa egiteko eman beharreko pausoak.

ASTRONAUTAREN KASKOA:

MATERIALA:

- Puxika
- Egunkari papera
- Zeta papera
- Kola zuria
- Tenpera zuria
- Pintzela
- Elektrikari hodia
- Guraizeak

NOLA EGIN:

- 1.- Puxika ongi puztu eta egunkari tirak moztu ondoren kola zuriz puxika ongi igurtzi.
- 2.- Egunkari tirak itsasten joan puxikaren inguruan geruza egonkor bat eginaz.
- 3.- Lehortzen utzi.
- 4.- Puxikaren aurrealdea moztu eta lepo ondoko buelta zeta paperaz indartu eta bolumena eman.
- 5.- Tenpera zuriz kaskoa margotu.
- 6.- Elektrikari hodia txertatzeko zuloa egin eta bertan zeta paperaren laguntzaz itsatsi.
- 7.- Nahi izanez gero, apaindu.

KASKOA BURUAN ETA IBILI ESPAZIOAN!





LH3




TXINA

Txinaren gaia lantzen aritu gara eta hainbat gauza ikasi ditugu. Horien artean txinerazko zenbait hitzen idazkera eta ahoskera.

Kaixo: Ni hau
Agur: Txai Txie
Eskerrik asko: Xe xe



Horrez gain, taldean antzerkitxoak prestatu ditugu eta guk sortutako txotxongiloen bidez gelan antzeztu. Jaialdi bikaina antolatu genuen!





Kaixo Txinparteko irakurleak:

A zer nolako bigarren hiruilekoa! Hasi eta berehala inauterietan pentsatu behar! Baina, egia esan, segituan piztu zitzaigun bonbila, Txanelako proiektuekin oso ezaguna duguna. Lokomozio aparatua lantzen ari ginela, ikasle batek: "zergatik ez jantzi eskeletoz?". Eta horrelaxe bideratu genuen: esan eta egin.

Gai horrekin bukatu eta "ARABIAN" sartu ginen buru-belarri: kokapena, bizimodua, Islama eta musulmanak, sorrera, zabalkundea, ohiturak, artea, ipuinen irakurketa dramatikoak...

Eta, bukatzeko, gela batean ikaragarritzko jaima dotorea muntatu eta ikastolako gurasoa den Fatimetu gonbidatu genuen. Fatimetuk oso gustura erantzun zituen gure galderak eta baita "tearen errituala" erakutsi ere, beraiek hiru alditan banatzen dutena: "El primero, amargo como la vida. El segundo, dulce como el amor. Y el tercero, suave como la muerte".

Hori da beraientzat tea hartzea, a ze hausnar-keta, ezta? Ba horrelaxe bukatu genuen arabiarren gaia, alfonbren gainean oinutsik, denok elkarrekin, tea dastatuz. Eta solasaldi eder hura eskertzeko, Fatimeturi eskutitzak idatzi genizkion. Ikusi horietako pare bat:





LH5

Gaztelaniako bosgarren mailako, “OJOS QUE NO VEN ¿CORAZÓN QUE NO SIENTE?” izeneko hiru-garren unitatean, munduko toki eta herrialde desberdinetako haurrak nola bizi diren eta beren eskubideak betetzen diren ala ez ikusten eta aztertzen aritu gara. Bukaeran, gure bizitza nola izango litzatekeen beste herrialde batean jaio izan bagina irudikatuz gutariko bakoitzak azaldu du idazlan baten (Refugio personal) bitartez. Hemen duzue, horietako lan bat:

LOS DERECHOS DE LA INFANCIA

27 de enero de 2012

He tenido la oportunidad de ver cómo viven niños y niñas de mi edad en otro continente. Si yo hubiera nacido en Madagascar (África), mi chabola estaría hecha de chapas viejas: tendría una pequeña cocina, un servicio y tres dormitorios.

En un dormitorio dormiríamos yo y mis diez hermanas, en el otro dormitorio dormirían mis diez hermanos y en el otro dormitorio dormirían mi madre y mi padre. No tendríamos salón.

Para ir a la escuela iría a pie con mis ocho hermanos y mis siete hermanas durante dos horas. Mis tres hermanas y mis tres hermanos mayores se quedarían en casa ayudando. En la escuela aprenderíamos tres asignaturas: matemáticas, geometría y psicomotricidad. La escuela estaría hecha de cuatro paredes y con unas alfombras en el suelo.

No tendría casi tiempo de jugar. No tendría muchos juguetes. Los juguetes estarían hechos con maderas y también algunos juguetes los habríamos hecho nosotros.

Solo comeríamos dos veces al día: el desayuno y la cena. Casi siempre comeríamos pescado. Comeríamos con las manos. Beberíamos agua del río... Todos los días me peinaría y también me lavaría con agua del río.


Así viviría yo si hubiera nacido en Madagascar, África...

Zihara Etxeberria
5.maila- B



Inauteriak


2012



Partzuergoa



HH





LH1



LH2





LH3-LH4



LH5-LH6



DBH 1-2-3





DBH4



Aurkezleak

Gurasoak

Teknikariak



Zuzendaritza





LH6

INAUTERIETAKO MOZORROEN AUKERAKETA LH 5. eta 6. mailetan

Eguberrietako oporrak pasa ondoren inauterietan pentsatzen hasten gara. Tutoreek esaten digute pentsatzen hasteko zertaz mozerrotu nahi genukeen gero, 5. eta 6. mailako ikasle guztien artean erabakia hartzeko.

Baina proposatzen ditugun mozerroek irakasleek jartzen dituzten baldintza batzuk bete behar dituzte: egiteko erraza, aurretik egin ez dena, dibertigarria, aukera anitz ematen dituen, antzezpenarako prestatzen dena.

Inauteriak baino hilabete bat lehenago, gelaka hitz egiten dugu mozerroari buruz eta denok dugu aukera gure proposamenak egiteko. Ideia edo proposamenen bat duenak proposamen horren aldeko defentsa egin behar du beste gelakideen aurrean (nola jantzi, zein antzezpen egin, zein musikarekin dantzatu...) eta ondoren, aurkeztu diren ideien artean bozketa egiten dugu eta boto gehien jaso dituzten bi mozerro aukeratzeko. Gela guztietan hori egin ondoren, mailako bilera egiten dugu eta bilera horretan gela bakoitzetik aterata diren proposamenen defentsa egiten dugu eta proposamen horiek bozkatzeko dira. Mailako bileretatik aterata diren bina proposamen zikloko bilera batean defendatzen dira aurreko bileretan egin den bezala. Ondoren, 5. eta 6. mailako ikasle guztiok bozkatzeko dugu. Botaketa egiteko, ikasle guztiok begiak ixten ditugu eta irakasleak ideiak esaten joaten diren bezala, guk eskua altxatzen dugu nahi dugun botoa emateko, baina gehienez bi boto eman ditzakegu. Aukeratu den mozerroak gehieneko boto kopurua jaso behar du (%75).

Hurrengo egunean, gela bakoitzetik bi boluntario aukeratzeko dugu eta jolas garaietan, irakasleekin batera, dantza asmatzen aritzen gara. Dantza asmatzen dutenean, jolas garaietan, gela bakoitzeko bi boluntarioek bere gelari dantza erakusten diete. Gelako kideek dantza ikasten dutenean, bizpahiru egun geroago kiroldegira joaten gara dantza saiatzera. Jaialdiaren asteen, ikastolan, gure postuetan jartzen gara eta saio orokorra egiten dugu. Aste horretan, gure mozerroa gelara ekarri behar dugu tutoreari erakusteko. Tutoreak onartu badu berriro etxera eramaten dugu inauteri eguna arte.

Horrela prestatzen ditugu inauteriak hirugarren zikloko.

LH 6. mailako
Intza, Mattin, Oroitz eta Nikolax





Oihan Aotigarraga
DBH 1



FITXA TEKNIKOA

Titulua: Hil ala bizi
Idazlea: R.L. Stine
Argitaletxea: Elkar
Urtea: 2007
Ilustratzailea: Borja Gotilla
Itzultzailea: Itziar Otegi

IRITZIA ETA AHOLKUA

Liburu hau oso interesgarria da, misterio asko eta izu momentuak daude.
Irakurtzea da onena!

LABURPEN TENTATZAILEA

Dex Joannaz maitemindurik dago, baina Joan-nak ez du berdin pentsatzen. Egun batean Dex eta Joanna labarretara joaten dira, Dex harri baten gainetik irristatzen den arte. Bizirik al dago Dex? Zer egingo du Joannak? Zer gerta-tuko da aurrerago?



Ulane Etxebarri
DBH 1



FITXA TEKNIKOA

Titulua: Jara live
Idazlea: Jasone Osoro
Argitaletxea: Alfaguara Zubia
Urtea: 2010
Azalaren irudia: Alex Orbe

IRITZIA ETA AHOLKUA


Niri liburu hau asko gustatu zait, bizitzan gertatzen diren gauzak kontatzen dituelako: lagunekin arazoak, amodiozko kontuak...
Erraz irakurtzen da, interesgarria da eta gomendaga-rria iruditzen zait.

LABURPEN TENTATZAILEA

Jara 15 urteko neska da eta Bartzelonara joan da bizi-tzera. Bartzelonan mutil lagun bat du Oriol izenekoa. Ihintzak tentatua Lekeitiora joango da asteburua pasatzera. Han ospatuko den makrokontzertu batera. Kontzertu hartan jende berria ezagutzen dute eta esperientzia ahaztezinak izango dira aste bukaera hartakoak.
Baina zer gertatuko da kanpaldian?



Naroa del Río
DBH 1



FITXA TEKNIKOA

Titulua: Oskar eta Andre Arroxa
Idazlea: Eric-Emmanuel Schmitt
Marraskilaria: Enrique Morente
Itzulpena: Miren Artetxe
Argitaletxea: Elkar
Urtea: 2008

IRITZIA ETA AHOLKUA

Liburu hau oso hunkigarria da.
Oskarrek eskutitz oso politak idazten ditu.
ANIMA ZAITEZ eta IRAKURRI !

LABURPEN TENTATZAILEA

Oskar leuzemia duen hamar urteko mutikoa da. Txakurra, etxea, arraina... erre zituela uste du. Gorroto du idaztea, baina egunero idazten dizkio eskutitzak Jainkoari, eta ezkutatu egiten ditu. Gauero andre bat etortzen da bere gelara. "Andre Arroxa" deitzen dio, beti arroxek jantzia dagoelako. Egun batean Andre Arroxak eskutitzak aurkitzen ditu eta konturatzen da, nahiz eta berak idaztea gorroto izan, eskutitzak tristuraz, maitasunez, zalantzez eta umorez beteak daudela. Zer egingo du eskutitzekin?



Ulane Etxebarri
DBH 1



FITXA TEKNIKOA

Titulua: Pirtzina zilborrean
Idazlea: Antton Kazabon
Argitaletxea: Elkar
Hiria: Donostia
Urtea: 2003
Orrialde kopurua: 87
Azalaren irudia: Juantxo Egaña

IRITZIA ETA AHOLKUA

Liburua asko gustatu zait, nahiz eta bukaeran zalantzan gelditu. Erraz eta azkar irakurtzen da. Liburua gomendatzen dut.

LABURPEN TENTATZAILEA

Aitor eta Joana telefonoz ari dira beren arteko harremanen arazoei konponbide bat emateko. Elkarrizketaren erdian bat-batean Aitorrek beste dei bat jasotzen du. Irati da, udalekuetan ezagututako neska, dotorea eta zilborrean pirtzina duena. Aitorri tilin egiten dio. Aitorrek biekin harreman ona izan nahi du, baina azkenean nahastu egiten dira.

Norekin geldituko da Aitor azkenean?



Uxue Telletxea, Haizea Saez de Eguilaz eta Argire Elizondo
DBH 4

AZKEN inauteriak

Jakin badakigu gure azken inauteriak izan direla aurtengoak. 13 urte luzez ikastolan ekintza asko egin ditugu, baina inauteri festa izan da denetan politena.

Eguna iristeko irrikitan egoten gara, egin dugun lan guztia ekitaldi polit horretan erakusteko. Hamaika mozorro, dantza, pauso eta abesti erabili izan ditugu ekitaldi horretarako. Gure ikastolako etapan bizi izan ditugun inauterien gaiak hauexek izan dira: sorginak, antxumeak, pailazoak, greziarrak, bakeroak, txinoak, grease, far west, euskal selekzioa, euskal inauteriak, arrantzaleak eta, azkenik, aurtan, lanbide desberdinak izan ditugu hizpide. Azken hau, motza bezain luzea izan da, gure Haurtzaro Ikastolako etapari amaiera jarri diona, alegia.



Nola bizitzen dituzue inauteriak?

Uxue: Inauteriak modu desberdinean bizitzen ditugu, pertsonaren arabera. Txikitik denok hartzen genituen ilusioz eta gogoz, baina handitzen joan garen heinean iritziak aldatzen joan dira. Orain inauteriak aspergarriak, luzeak, lotsagarriak... dira batzuentzat, beste batzuentzat, aldiz, dibertigarriak izaten jarraitzen dute, eta kulturaren parte denez, esfortzu bat egiten dugu ohiturak aurrera jarrai dezan.

Nire iritziz, azkenean denok jartzen gara urduri dantzarako garaian ondo irtetea nahi dugulako, baina irten eta ahal dugun hoberen egiten saiatzen gara aurretik egin dugun lanak bere emaitzak jaso ditzan.

Haizea: Nire ustez, inauteri hitzak bakoitzari gauza bat dakarkio burura, denoi gauza oso ezberdinak: poza, alaitasuna, dantza, musika, mozorroak, aspergarria... Hala ere, denok ditugu tximeletak zilborrean anfitraturara dantzatzera irteten garenean.



Egun askotako lana eraikusten dugu, eta gorputza pixka bat astinduz, oso ongi pasatzen dugu. Sekulako eguna izaten da: prestaketa, desfilea, bazkalorduko nerbioak eta arratsaldeko ekitaldia. Azken hau da denetan onena. Maila bakoitzaren erakustaldia eta gurea, asko disfrutatzen dugu.

Zaila al da dantza eta koreografia asmatzea?

Haizea: Zaila ez, baina askotan nekagarria izaten da. Badago beti dantzarako sormena duen norbait, eta denen laguntzaz segituan ateratzen dugu dantza. Zailena nik uste musika aukeratzea izaten dela. Hain gustu ezberdinak ditugunez, ez dakigu zein aukeratu eta askotan musika gaiarekin lotzea oso zaila egiten zaigu. Behin hori aukeratuta, lanaren hiru laurdena egin dago. Urtetik urtera, denbora gutxiago dugu horrelako gauzak egiteko eta jolas garaietan gelditzen gara antolatzeke. Denboraz justu ibiltzen garenez, ideia piloa botatzen ditugu eta horrekin guztiarekin gure montajea egiten dugu.

Uxue: Ez da oso zaila, baina konplikatu da eta gogor egin behar da lan. Lehenik eta behin, gaiarekin zerikusia edukiko duten kantak hautatu behar dira, ondoren, hasierako antzerkia prestatu behar da eta hark jendearentzat ikusgarria izan behar du, mezu bat transmititzen ere saiatzen gara. Azkenik, koreografia asmatu behar da. Hura prestatzeko hainbat gauza eduki behar dira kontuan: ez izatea oso zaila, gutxi gorabehera denen gustukoa izatea, denek gogoz egingo dugun zerbait izatea... eta iritzi asko daudenez, oso zaila da denen gustuko zerbait sortzea, baina ahal duguna egiten dugu.

Anfiteatrora irten eta horrelako jendetza ikustean, oraindik dantzarako gogoia izaten duzue?

Haizea: Bai noski!. Horrelako ilusioarekin prestatutako jai baten emaitza beti bukaeran ikusten da eta



hori anfiteatroan egiten da, nahi izan ala ez. Gogoz egoten gara, gure txanda noiz iritsiko horra ateratzeko eta gure erakustaldia emateko. Txikitan nahiko lotsa edukitzen genuen, baina denborarekin lotsa galduz doa. Jende asko egoten da, baina azkenean publikoaz ahazten gara.

Uxue: Anfiteatrora irtetean eta jendetza hori ikustean, makina bat gauza hasten dira bueltaka geure buruan urduritasunaren ondorioz. Dena ongi irtetea nahi dugu, saiatauta edukitzen dugun bezala, baina azken momentuan, ikusleekin, musikaren hasierarekin... aldaketak gertatzen dira, eta... hauek gainditu eta aurrera! Normalean, ikasleok ez dugu aurrera begiratu nahi izaten jendea ikustean lotsa sentitzen dugulako, beraz, gehienok gure gauzak pentsatu, erlaxatzen saiatu eta ahal dugun hoberen egiten saiutzen gara jendea hor dagoela ahaztuz.

Irakasleek parte hartzen al dute prestaketan edo egiten duzuen zeuek sortua da?

Haizea: LHko bigarren ziklora arte irakasleek egiten zuten dena. Bai dantza, bai mozorroa eta montaje osoa. Ikasleek ikasi besterik ez genuen egin behar. Baina hirugarren zikloan jada botazioak egiten dira mozorroa aukeratzeko, eta taldetxoek dantza sortzeko. Irakasleen lana ez da erabat desagertzen, baina ikasleei autonomia gehiago ematen zaie. DBHn, aldiz, ikasleen esku geratzen da dena: jolasgaraietan geldituz, eguerdian... Eta horretarako taldetxoak borondatezkoak dira, beraz, jende gutxiago egoten gara. Irakasleek ere laguntzen dute, baina guk egin behar dugu ia dena.

Uxue: Txikitatik LH 5. maila arte irakasleek aukeratu dituzte gure mozorroak, kantak, antzerkiak.... Baina lehen hezkuntzako 5. mailan inauteriak pixka bat zaildu ziren, guk aukeratu behar genuen gaia, eta dantza sortu ere bai irakasleen laguntzaz, LH 6.ean berdin. Ikastolako hurrengo ziklora pasa ginenean, oraindik erresponsabilitate handiagoa genuen, guk hautatu behar genuen mozorroa eta dantza ere irakasleen lana zen, horretarako, jolasgaraietan, eguerdian... gelditu behar genuen. Dena gazteon lana zen, baina sortzen zuen taldea boluntarioek osatzen zuten, beraz, ez genuen denok lan egiten.

Zer moduz ikusi dituzue aurkezleak beren lanean? Haizea zuk Juaniren papera egin zenuen, zer moduz moldatu zinen?

Haizea: Egia da bai. Nik Juaniren papera egin nuen ostiralean eta egia esan oso esperientzia

polita izan zen. Sekulako suertea eduki nuen azkeneko urtean horrelako gauza bat egitearekin. Ez dut ukatu behar aurreko astea oso nekagarria izan zela. Gidoia buruz ikasi, hainbat entsegu egin... Egun osoa ikastolan pasa genuen, baina merezi izan zuen. Lotsa alde batera utzita, genekienarekin aurrera egin genuen eta oso ongi pasa genuen. Umore puntu bat ere jarri genion, denok arratsalde zoragarri bat pasatzeko asmoz.

Uxue: Nire ustez, aurkezleek oso ongi aurkeztu zuten arratsaldeko ekitaldia. Batzuetan oso luzea egiten da, baita aspergarria ere, baina aurtan, pertsonaia desberdinak agertu direnez eta era laburrean eta dibertigarria egin dutenez, motzagoa eta barregarria iruditu zitzaigun. Gainera, esfortzu handia egin zuten dena prestatzeko, lan bikaina egin zuten.

Zer gogoraziko zenukete 13 inauteri hauetatik?



Haizea: Oso zaila da gauza konkretu bat esatea, hainbeste izan baitira ikastolan bizitu ditugun inauteriak, baina politeneta-ko bat Grease izan dela uste dut. LH hirugarren zikloko inauteriak sekulako fama dute gure ikastolan eta egia esan horiek izaten dira politenak. Arropa oso

koloretsuak erabili genituen, eta dantza ere mozorroarekin zuzenki lotuta zegoen. Irakasleen sorpresa ere mundiala izan zen, Lupe Elvis Presleyez jantzita etorri zen moto baten gainean...!

Uxue: Urtero gertatu dira gauza onak inauterietan, urtero geratu zaizkit gauzak buruan grabatuta, baina gehienak Grease egin genuenekoak dira. Denok geunden oso motibatuta egun horretan, mozorroak ezin hobeak ziren, dantza ere oso dibertigarria zen eta sorpresa sinesgaitza izan zen, gure irakaslea moto baten gainean sartu zen mozorrotuta. Ikaragarria izan zen, benetako Elvis Presley zirudien. Erabat sartu ginen paperetan, egun hura ahaztezina izango da batzuentzat.

Esan dugun bezala, hauek gure azken inauteriak izan dira. Artikulu honen bitartez urte hauetako guztietako momentu onak gogorarazi ditugu eta agur esateko garaia iritsi da. Hainbat mozorro festaren ondoren, azkena ere iritsi zaigu. Eskerrak eman behar dizkiogu Haurtzarori, hainbat momentu on pasatzeko aukera emateagatik eta hain ongi pasatzen erakusteagatik. Hurrengo inauteriak ere hain onak izaten jarraitzea espero dugu eta guk disfrutatu dugun bezala disfrutatzeko jarraitzea opa dizuegu. Eskerrik asko urte hauetan jantziak egiten lagundu diguzuen guraso, langile eta irakasle guztioi.



DBH 4



Aroia Altuna
DBH 4

nola gutxitu ikasleone estresa?



Estresa nahiko arazo arrunta da adin guztietako jendearen artean, baita ikasleone artean ere. Izan ere, gutako asko sentitu ohi gara gainezkatuta azterketa garaietan gaudenean edo, besterik gabe, egun bakar batean egiteko asko ditugunean, ala ez?

Askotan galdetu ohi diogu gure buruari zer egin dezakegun egoera horretatik irteteko eta, are gehiago, egoera saihesteko. Gainera, arazoa bere horretan uzteak osasun arazoak ekar ditzake, hala nola buruko mina eta bestelako gaixotasunak. Bestalde, gure gain emozio ezkorrak eragin ditzake; esate baterako, haserrea, tristura eta antsietatea ere sor ditzake.

Nire ustez, norberaren antolamendu desegokia da eragile nagusia: honen barruan denbora libre falta eta etxerako lan gehiegi sartzen ditut. Horrez gain, nekeak, hau da, behar bezala ez deskantsatzeak ere eragin handia duela esango nuke. Kontua da, gutako askok ez dugula astirik edukitzen etxean lasai egoteko, gaur egun estraeskolar ugari egiteko aukera baitugu. Batzuek kirola egiten dugu, beste batzuk musika eskolara joaten dira eta hainbat ikasle ikastolako lanetan laguntza jasotzeko klase partikularretara joaten gara.

Dena den, etxerako lanei dagokienez, esan behar dut adin honetan irakasleek egun batetik besterako eginbeharrak ezartzen dizkigutela eta azterketa garaian egonez gero gauza asko pilatzen zaizkigula, azterketak ondo prestatu behar dira eta. Egun batetik

besterakoak ez diren lanak azken egunerako uzten ditugu zenbaitetan eta azkenean ez gara gai izaten dena behar den bezala egiteko.

Hori ez ezik, egoki ez deskantsatzea eta lo gutxi egitea ere txarra izan daiteke gure osasunerako. Batzuetan, lehen aipatu dudan moduan, ikasleak berandu arte geratzen gara azken momenturako utzitako lanak egiten. Hori dela eta, ez dugu nahiko lo egiten, hurrengo goizean goiz jaiki behar izaten baitugu ikastolara joateko. Etxerako lanik egiten ez badugu, ordea, nire kasuan behintzat, goiz oheratu beharrean telebista ikusten geratzen naiz.

Horrela, bada, estresa arazo serioa izan daiteke ikasle askorengan. Hala eta guztiz ere, horri aurre egiteko bide ugari aurki ditzakegu, baina beti ere norberaren esku egongo da era honetako egoeretatik irtetea.

Hasteko, denbora libre gehiago edukitzeko, estraeskolarraren bat uztea izango litzateke egokiena. Kirola egitea beti da osasuntsua, baina kirol bat baino gehiago praktikatzen baditugu, gehien gustatzen zaiguna aukeratu eta besteak praktikatzeari utziko nioke.



Gai berarekin jarraituz, estraeskolar guztiak bi egunetan banaturik badauzkagu eta beste hiru astegunak libre badauzkagu, estraeskolarren ordutegia aldatzea egokia izango litzateke. Gauzak horrela, egunero etxerako lanak egiteko tarte bat edukiko genuke. Hala ere, ikastolaz kanpoko ekintza hauen ordutegia aldatzea zaila izaten da, normalean taldeko ekintzak izaten direlako, eta ez delako erraza taldeko guztiei ondo datorkien ordutegi bat adostea.

Ez hori bakarrik, gure antolamendu egokirako ikastolako agenda erabili eta lanak noiz egin planifikatu behar da. Askotan kexatu ohi gara ikasleok etxerako lan gehiegi ditugula eta, baina norberak ikasi behar du bere burua antolatzen. Hori ondo eginez gero, azken egunean ez zaizkigu hurrengo egunerako lanak bateratuko eta lasaiago ibiliko gara.



Hau guztia dela eta, azterketa garaian lanak lehenbailehen egitea komeni da. Egia esan, maila honetan azterketak serio hartu behar dira eta zenbait arlotan, gelan arreta jartzeaz gain, etxean ere orduak eman behar dira ikasten.

Behar dugun adina lo egiteak eta gauetan azkar oheratzeak ere lagun diezaguke estresa saihesten, nahiko lo eginez gero, goizetan indarberrituta eta deskantsatuta esnatzen baikara. Kontua da, gu ohartzen ez garen arren, lo gutxi egiteak neke handia sorrazten duela, azkenean leher eginda sentitzen garen arte.

Hortaz, gure bizitzaren antolamendu egokiak zerikusia du gaineratzen zaigun estresarekin eta nork bere burua kokatzen ez badu, ingurukoek ezin diezagukete lagundu. Horregatik, gure eguneroko bizitzan beharrezkoak ikusten ez ditugun gauzak egiteari edo praktikatzeari utzi eta benetan gustatzen zaizkigun eta garrantzitsuak iruditzen zaizkigun ekintzetan zentratu behar dugu. Adibidez, orain dela gutxi arte Euskal Dantza egiten nuen, denbora hori beste gauza batzuetan aprobetxatu nezakeela iruditzen zitzaidan, eta utzi egin nuen.

Laburpen modura esango dugu gu garela gure bizitzaren jabe eta norberak ikusi behar duela noraino iristen den. Hau da, ea egin behar ditugun gauza guztiak modu txukun batean egiteko gai garen, eta antolamendua hobetu behar dugun edo ez. Inork ez daki ni nola sentitzen naizen espresatzen ez badut. Eta era berean, nik ez dakit nire ingurukoak nola dauden, azaltzen ez badirate. Horrenbestez, estresa norberak konpondu beharreko arazoa da.



DBH 4



Ane Dhesa eta Ainhoa Tragozzi
DBH 4

Jesús Cabrero orientatzailearen

Hitzaldia?



Otsailaren 8an, asteazkena, Jesús Cabrero orientatzailea etorri zen Haurtzaro Ikastolara DBH 4. mailako ikasleoi eta gurasoei hitzaldia ematera. Bere burua aurkeztu ondoren, aurkezpen digital batek lagunduta, argi utzi zuen etorkizunari begira ikasleak ginela garrantzitsuak, ez guraso ezta irakasleak ere.

Aurkezpenari hasiera emateko, adibide gisa, auto gorri baten irudia erakutsi zuen, eta bertatik garrantzizkoena gidaria zela azaldu zuen. Hau da, berdin duela autoa berdea, gorria edo beltza izan, nahiz azkarra edo motela izan. Azken finean, barruan doana, gidatzen ari dena dela inportanteena. Hori horrela izanik, pertsonen artean ere gauza bera gertatzen dela esan zuen, hau da, berdin duela gure itxurak, garrantzia barrukoak duela; gure izaerak eta jakinduriak.

Jakinduria, jakitea, askatasuna da; ez duzu beste inoren beharrik badakizulako. Jakitera iristeko, prozesu batetik igarotzen dela argitu zigun: irakatsi, estudiatu, ikasi, eta azkenik, jakin. Irakatsi ez dute irakasleek bakarrik egiten, Cabrerok jarri zuen adibidean, errepi-dean zoazenean ez badakizu zer bide hartu behar duzun karteak erakusten dizute. Bigarren pausoa, estudiatzea, zerbait ikasteko ahalegina egitea da. Ondoren, ikastea, zerbait egiteko edo erabiltzeko gaitasuna gureganatzea. Pauso horiek eginez gero, jakin egiten dugu, horrela, askatasuna lortuaz.



Lehen esandako prozesu horretan, estudiatu edota ikasterakoan, gure aldetik gogoa jarri behar dugu. Cabreroren hitzaldiaren helburua zen, gure ustez, ikastea gauza ontzat, positibotzat hartzea. Horretarako, ariketatxo bat egiteko esan zigun, aurkezpenean zenbait gauza positibo eta negatibo jarri zituen: festa, langabezia, alaitasuna, dirua, gaixotasuna, pobrezia, bidaia eta ikasi. Hitz horiek banatu behar genituen, eta ikasle gehienok ikastea alde negatiboan jarri genuen, eta beste gutxi batzuek, ordea, ikastea alde positiboan jarri zuten eta dirua alde negatiboan.

Cabrerok hitzaldi guztian zehar, ikastera animatu gintuen, eta guk nahi duguna aukeratzera. Izan ere, gaur egun, saiatzen bagara, nahi duguna ikas dezakegu. Hori horrela izanik, ikastola amaitu ondoren egin

dezakeguna azaldu zigun. Hiru batxilergo mota aurkeztu zizkigun: zientziak eta teknologien modalitatea, giza eta gizarte zientzia eta artistikoa. Beste alde batetik, erdi mailako berariazko lanbide heziketa aipatu zuen. Hala ere, garrantzi handiagoa eman zion batxilergoari, hiru modalitateetatik gustukoen duguna aukeratzeko esanez, gehien erakartzen gaituena aukeratzuz.

Laburbilduz, Jesús Cabrero orientatzaileak hitzaldian argi utzi zuen garrantzitsuenak ikasleak garela etorkizunari begira. Bestalde, ikastea gauza ontzat hartzea eta batxilergo joateko asmoa dugunok gustukoen dugun edo ondoen moldatzen garen modalitatea aukeratzeko.





Airea konprimatuta mugitzen den zientzia,

Pneumatika

Oraingo honetan Haurtzaro ikastolako gela kuttun batera egingo dugu bisita, Teknologia gelara hain zuzen, ea gai honi buruz Madalenek zer dioen.

Kaixo Madalen, zer moduz?

Kaixo Josu, aspaldiko, ondo eta zu?

Zuzen-zuzenean, zer da pneumatika?

Airea konprimatu eta deskonprimatuta mugimenduak eragin ditzakeen energia iturria dugu, garai batean ikaragarri erabili zena eta egun energia-iturriez kezkatuta berreskuratzen ari dena.

Nola bururatu zitzaizun Haurtzaron pneumatika lantzea?

Natur zientzietan presioa lantzen denez, lehendik ere xiringen bidez halako proiektu txikiak egiten saiatu naiz. Aireak erraz ihes egin eta proiektua arrakasta izatea zaila izaten zen. Bitartean, BTEK interpretazio zentroko proiektuaren itzalpean, ikastolen etxean, ikastola ezberdinetako teknologoek talde bikaina eta era askotakoa sortu zen. Bertan jardun duen Jesus Mari Aranburu beasaindarrari esker indarberritu zitzaidan arlo honetan aritzeko gogoia. Lego etxeko kit batean inbertsioa egin eta hemen gabilta proiektu batzuk eginez.


Eguneroko bizitzan erabilgarritasunik ba al du?

Ikasleak harrিতa geratzen dira aireak zenbateko indarra eduki dezakeen. Jakin auto tailerretan airea erabiltzen dutela autoa altxatzeko. Lurrikaren aurrean ere, sorospen taldeek harritzarrak altxa eta bizidunen erreskaterako airez betetzen dituzten poltsak erabiltzen dituzte. Hainbat autobus eta kamioien sistema asko modu pneumatiko edota hidraulikoen bidez era-



giten dira, autobus edota trenen ateak ireki eta ixtea adibidez. Zuzenean pneumatika ez bada ere antz handiko hidraulika (uraz, zein olioaz baliatuz) darabilgu beste sistema askotan, karga igogailuetan adibidez. Txoko askotan pneumatika zein hidraulikaren aplikazio ugari topa genitzake.





Bai, baina zein motako proiektuak burutzen dituzte zure ikasleek?

Proposamen ezberdinak zituzten aukeran, eta talde bakoitzak nahi zuen proposamena aukeratu du. Aurretik ate pneumatikoak, kamioiak eta zubi pneumatikoak eraiki dituzte.

Ba al da nonbait halako proiekturen baten bideorik edota argazkirik ikusteko aukerarik?

Bai. Gure ikasleek lan bikainak egin dituzte. Meritua haiena da. Bideo hauek gure youtubeko kanalean daude ikusgai, "haurtzarotek" kanalean, hain zuzen. Helbide hauetan:

Pneumatikako bideoak:

<http://www.youtube.com/playlist?list=PL64CDB4712C9B9A63>

Teknologia kanal osoaren helbidea:

<http://www.youtube.com/user/haurtzarotek/>

Mila esker Madalen izandako arreta eta emandako azalpen guztiengatik.

Mila esker Josu eta nahi duzunean etorri berriro ere.

*Madalen Usabiaga eta Josu Arotzena
TeknoZientzia departamentuko kideak*



Banakako kirolen eskolaz kanpoko monitoreak

Ikastolan eskolaz kanpoko kirolatan baditugu banakako kirolak direnak ere: atletismoa, kenpoa eta xakea.



Hirurak banaka egiteko kirolak dira, eta hirurak oso ezberdinak. Oraingo honetan atletismoaz eta kenpoaz hitz egingo badugu ere, eskolaz kanpoko ekintzetan xakea ere multzo horretakoa dugu.

Zenbat monitore zaudete ekintza bakoitzean? Esango al zenigukete nola bideratzen duzuen ekintza horietako bakoitza?

Atletismoa: Bost monitore gaude, eta astelehenetik ostegunera 19:00etatik 20:00etara elkartzen gara ikastolan. LH 3. mailatik DBH 4. mailara bitarteko edonor etor daiteke, nahi duen egunetan. Bertan, atletismoaren modalitate guztiak lantzen ditugu.

Kenpoa: Monitore bakarra naiz gaur-gaurkoz eta ekintza bideratzeko orduan horrek asko errazten du, ez dago eta koordinazio arazorik. Ikastorduak aurretik pixka bat pentsatu eta prestatu, ordua iristean bertara joan eta klasea eman, ez dago besterik.

Zein helburu ditu kirol bakoitzak? Kirol horiek eginez, zein helburu bete nahi dira?

Atletismoa: Atletismoa ezagutzea eta kirola eginez ondo pasatzea da helburu nagusia. Honez gain, haurren arteko harremanak sustatzea ere garrantzitsua iruditzen zaigu. Adin desberdinetako haur eta gazte txoek elkarrekin entrenatzen dute egunero.

Kenpoa: Kenpo Kayren helburu nagusia defentsa pertsonala da, bere zentzu zabalenean: edozein mehatxuren aurrean osorik irtetea. Honek barne har-



tzen ditu beste pertsonengandik jasandako erasoak, baina baita eroriko batetik onik irteten jakitea ere, adibidez.

Kirol hauetan parte hartzeko zein ezaugarri behar ditu ikasleak? Aparteko eskakizunik ba al dute kirol hauek?

Atletismoa: Lehiatzen duten mailetarako ez dute eskakizun berezirik behar, ikasteko eta ondo pasatzeko gogoa eta ilusioa dira garrantzitsuenak.

Kenpoa: Ez da aparteko eskakizunik behar. Azken finean kirola bera egokitu behar da ikasleari eta horretan datza irakaslearen meritua. Defentsa pertsonala pertsona guztion "eskubidea" da eta beraz ezin da ezaugarri zehatz batzuen arabera irakatsi. Pertsona edonolakoa dela ere, dituen ezaugarriak dituela, defendatzen jakiteko baliabidea behar du eta Kenpo Kayk hori bilatzen du.

Konpetizio edo lehiaketetan parte hartzen baduzue, zein onura dakarkio horrek kirolariari?

Atletismoa: Gure kasuan, atletismo pistarik gabe entrenatzen dugunez, lehiaketan parte hartzean pista erabiltzen eta bertan lehiatzen ikasten dute. Luzera jauzian hondarretara egiten dute salto, iltzezko zapatilak erabiltzen dituzte...

Kenpoa: Oraingoz ez dugu lehiaketetan parte hartzen, baina bai pentsatzen dut onura asko dakarkiola ikasleari. Lehenik eta behin, estres egoera baten



aurrean jartzen du kirolaria eta hori edozein erasotan izango lukeen estresaren aurrerapen moduko bat litzateke. Bestalde, ondo antolatuz gero, autoestima, disziplina eta horrelako gauza asko ere lantzen dira.

Askotan gurasoen laguntza ere beharrezkoa gertatuko zaizue. Alde horretatik zer duzue esateko?

Atletismoa: Laguntza behar izan dugunean beti egon dira laguntzeko prest eta hori eskertzekoa da.



Kenpoa: Ez da Kenpo Kayren kasua, gaur-gaurkoz. Nolanahi ere, aipatu behar dut gurasoen aldetik beti disposizio ona jaso dudala eta nire lana erabat errespetatzen dutela, eta hori oso garrantzitsua da.

Txinparteko aukera hau aprobetxatuz zer adierazi edo eskatu nahiko zenukete.

Atletismoa: Lerro hauen bidez jendea animatu nahiko genuke atletismoa probatu eta ezagutzera. Lagun berriak egin, ondo pasa eta izerdi pixkat botatzeaz gain, astean zehar atletismoaren modalitate guztiak lantzeko aukera izango dute, txiki-txikitik. Abiadura, erresistentzia, jauziak, jaurtiketak... Oso kirol osoa da atletismoa, oraindik haurren artean oso ezaguna ez bada ere.

Kenpoa: Ezer berezirik ez. Azken finean norberak gustuko duen hori egitea da garrantzitsua eta gustuko duen horretan ongi pasatzea. Hori da, besteen artean, gure ikastorduetako helburu nagusietako bat: ongi pasatzea eta egunero zerbait ikastea.

**ANIMO ETA SEGI LANEAN,
GURE HAUR ETA GAZTETXOEK GUZTIA
MEREZI DUTE ETA!**



DBHko ordezkariekin *Berriketan*

Oraingo honetan DBHko ikasle ordezkariak elkarrizketatuko ditugu, bereziki 4. mailako ordezkariak; Itsaso Aldai, Aitor Mitxelena, Ilargi Aristondo eta Ibai Kortabitarte, hain zuzen ere.



Ezkerretik eskuinera: Ibai Kortabitarte, Itsaso Aldai, Ilargi Aristondo eta Aitor Mitxelena

Ordezkarien funtzioak, lanak, ilusioak... zein diren esango digute.

Ea bada, nola egiten da ordezkarien aukeraketa Haurtzaro Ikastolan?

Ikasturte bakoitzaren hasieran, tutorearekin batera, bozketa anonimo bat egiten dugu, bozketako papertxoetan gelako bi neska-mutilen edo gelakide baten izena jarriaz. Hala ere, norbaitek ordezkari izan nahi izanez gero, aurrez gelakideei adierazi eta hauek bozketaren bidez hala erabakitzen badute, eskaera egin duen ikaslea ordezkaria izango da. Dena den, kasu batzuetan, aurtengoan gurean izan den moduan, gela bakoitzeko bi neska-mutil izan behar dira ordezkariak, hau da, mailako 4 ordezkari.

Zein dira ordezkari baten funtzioak edo eginbeharrak?

Ordezkarien funtzioak edo eginbeharrak hauek dira: ordezkarien bileretan eta bertako erabakietan parte hartzea, gelako kezkak jaso eta bideratzea, bilereetan esandakoaren berri ematea, gelako giroa zaintzea eta Haurtzaro Ikastolako bizitzan parte hartzea modu eraginkorrean, behar denean, bitarterkari lana egitea, zuzendaritza taldea, ikasketa buru edota tutorearen asmoak eta iradokizunak adieraztea, irakasle eta zuzendaritza taldearekin parte hartu Haur-

tzaro Ikastolako funtzionamendua egokiagoa izan dadin eta batzordeetako partaide izatea.

Funtzio horiek guztiak betetzeko, ordezkariak aparteko lan handia egin behar al duzue?

Normalean, bilera hauek hilabeteetan behin egiten direnez, ez da aparteko lan handirik egin behar. Baina bilerak dauden egunetan informazioa hartzea eta gelari gaiaren aurkezpena egin behar zaio. Edota ikasleren batek kexak edo gairen bat baldin badu, ordezkariak bileran azaldu beharko dute.

Zuen ustez edozein ikasle izan al daiteke ordezkari? Nolakoa izan beharko luke edo izan behar du ordezkari batek?

Teorian edozein ikasle izan daiteke ordezkari, baina ohikoa da ardura honetan denek erantzun bera ez ematea, hau da, askotan gelaren edo mailaren aurrean ordezkarien bileretan hitz egindakoa azaldu behar da, eta oso lotsatia den edo jendaurrean hitz egiteko zailtasunak dituen ikasleak ez du ardura hau, jendaurrean azaltzeko arazorik ez duen ikasleak bezala beteko. Bestalde, oso garrantzitsua da besteen iritziak errespetatzen jakitea ardura honetan, izan ere, edozein ikasleren bozeramailea izan daiteke ordezkaria eta ikasleren batek egindako eskaerarekin ados ez balego, tolerantzia guztiz errespetatu beharko luke. Honez



gain, ez dago ordezkari batek eduki beharko lukeen beste ezaugarri berezirik. Hala ere, esan beharra dago ez dagoela ordezkari bikain edo eskasik, ordezkari bakoitzak bere erara egiten ditu gauzak, betiere dagozkion funtzioen barruan eta ardura edo jatortasunaren barruan.

Ikastolako hainbat batzordetako partaide izateak zein onura dakarkizue ordezkariet?

Hainbat batzordetan parte hartzean, geure iritzia eta nahiak azaldu eta hauek aurrera eramateko aukera eskaintzen zaigu.

Eta etapako ikasleei orokorrean...

Ikasleentzat aukera ezin hobea da euren proposamen eta hobekuntzak praktikan jarri ahal izateko. Izan ere, gelako ordezkarien bitartez, haien arazo, kezka, konponbide, proposamen... dagokien batzordeetara irits daitezke. Han eztabaidatu eta ikasle honek esandakoa ongi argudiatua, zentzuduna eta egiteko arazorik ez balego ikaslearen proposamen hauek martxan jarriko lirateke.

Etapako maila guztietan ditugu ordezkariak, baina ziurrenik guztiek ez duzue inplikazio maila bera izango. Nolako antolaketa daukazue zuen artean?

Ikastolan batzorde ezberdinak daude, hartu beharreko erabakien arabera sortutakoak. Ingurumenaren gainekoa, festen ingurukoa, hezkuntzaren ingurukoa... Azken hau izan ezik, beste guztiak

ordezkarien zaletasun edo gogoen arabera batean ala bestean kokatzen dira. Bi ordezkari izaten dira batzordeko, eta beste bi ordezkari. Laugarren mailan, ordea, desberdina da. Gure mailako bi ikaslek parte hartzen dute hezkuntza batzordean eta beste biak ordezkariak dira, izan ere, azken batzorde honek hezkuntzarekin zerikusi handiena duenez, erabaki sendoagoak hartu behar dira eta laugarren mailakook esperientzia gehien dugun ikasleak garenez, zaharrenak garelako, gure maila ardurtzen da hezkuntza batzordeaz.

Gela batean ikasturte osorako ordezkaria hautatu behar denean, zein aholku emango zenukete? Zertan jarri behar da arreta ordezkari bat hautatzean?

Noizean behin ordezkariak boluntarioki hautatzen dira, bestetan, aldiz, zozketa bidez. Ordezkariaren arduran jarri beharko litzateke arreta, bileretara joango den, aportaziorik egingo duen ala ez, gogoz joango den bileretara, etab.

Eta Txinparteko aukera hau aprobetxatuz zer esan nahi duzue gure irakurleek ere jakin dezaten?

Nahiz eta batzuetan gogo handirik gabe joan behar izaten dugun bileretara, interesgarri bihurtzen direla bilerak. Bestalde, datozen ikasturteetan ordezkari izatera animatzen zaituztegu, ikasle zein gurasoek hainbat batzordetan parte hartu eta iritzia eman, pixkanaka gauzak hobetu eta hezkuntzan aurrera pausoak emateko.





Aritz Urdanpileta Otegirekin

berriketan



Aritz Urdanpileta Otegi ikasle ohia izan da gure azken elkarrizketatua. 28 urteko Elizalde auzoko mutila dugu bera, kirolzale amorratua eta ikasle fina. Azkenaldian lanez gainezka dabilen arren, Txinpart aldizkariaren eskaerari baietz esan dio, bi aldiz pentsatu gabe. Benetan interesgarria Aritzek erantzundakoa!

1. Aspaldi bukatu zenuen ikastola. Zer egin duzu orduz geroztik? Zertan zabilta orain?

Egun Euskal Herriko Unibertsitako (UPV-EHU) irakaslea naiz (Jarduera Fisiko eta Kirolerako departamentuan), konkretuki Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako Fakultateko irakaslea.

Honetaz gain, Valentziako Unibertsitatean Kirol Nutrizioko Master Unibertsitarioko irakasle ere banaiz, eta Farmazia eta Elikagaien Zientziak Departamentuko ikertzailea. Azkenaldian nire ikerketak alor honetara bideratzen ditut.

Unibertsitatetik kanpora, Kirol zein Nutriziorako Aholkulari moduan jarduten dut, elite zein afizionatu mailako kirolariei aholkularitza pertsonala eskainiaz. Era berean, Espainiako Dietista-nutrizionisten, Kirol Nutrizio Saileko, Koordinatzaile Zientifikoa naiz.

Nire curriculum nahiko korapilatsua bada ere, Haurtzarotik ikastolan eta Oiertzen ikasi ondoren, nahiko ikasketa burutu ditut: Jarduera Fisiko eta Zientzietan Lizentziaduna eta Giza Nutrizio eta Dietetikako Diplomatura Gasteizen, EHU, Pedagogiako Espezializazioa (CAP), hau ere Gasteizen, hiru master Madril, Bartzelona eta Leonen, beste bi Espezializazio Bartzelonan, Doktoradutza programa bat Leioan, Doktore tesia (egun egiten ari naizena)... eta okerrera da konturatzen ari naizela zenbat eta gehiago ikasten saiatu gero eta gutxiago dakidala...

2. Doktore tesia egiten ari zarela aipatu diguzu. Azalduko al zeniguke, labur-labur, zertan datzan?

Bai, nire tesi doktora "Aldizkako hipoxiako estimuluen aplikazioak altuerako gaitza eta kirolean" gaian datza, hau da, altuerako entrenamenduak simulatzen ditugu eta honekin lotu nahi dugu errendimendua handiagotzea kirolariengan eta era berean, altuerako gaitza pairatzen duten mendizaleen osasuna bermatzea.

Izan ere altuerako gaitza oso arriskutsua izan daiteke. Hau, oro har, 4000 metrotik gorako mendiak igotzen ditugunean pasatu ohi da: nekea, buruko mina, zorbioak, gose falta zein lo ezina pairatzen da. Mendizale askok horretarako farmakoak hartu ohi dituzte eta igotzen jarraitu, baina hori ez da aproposena, izan ere, altuerako gaitza biriketako edema edo buruko edema baten aurrekari izan daiteke.

Ameriketako Andeetan urte bat baino gehiagotz egon naiz mendizale bezala zein ikertzaile bezala eta han ikusitakoak ikusi ondoren, egoera hobetu behar nuela erabaki nuen eta honi aurre egiteko irtenbideak bilatu. Azken ikerketa Alacanteko espedizio batekin aritu gara eta emaitza oso onak izan ditugu, izan ere Everest igotzea lotu zuten, hasierako mendizaleen maila apala bazen ere.

Kirolariekin ere aritu gara ikertzen errendimendua hobetzeko bide "legalaren eta ilegalaren artean" murgilduaz. Legal eta ilegal diot, izan ere hipoxiako estimulu hauek ere eritropoietina delako hormona jariatzen laguntzen dutelako, "EPO" bezala ezagutzen dena. Nolanahi ere, guk ikusi dugu hipoxiako aldizkako estimuluek osasunean onura nabarmenak izan ditzaketela, hala nola gorputzeko gantza portzentajea jaitsi dezakete, tentsio arteriala erregulatu eta bihotz zein nerbio sistemaren babesean eragin dezaketela.





Gure ikerketetan, errekupeazio gaitasuna hobetu eta indar-erresistentziako kiroletan errendimendu maximoa hobetu dezakeela ikusi dugu. Eginiko azken ikerketan, lesionaturiko futbolariengan errekupeazio gaitasuna azkartu genezakeela ikusi genuen.

3. Pozik sentitzen al zara hartutako bidearekin?

Pozik nago hartutako bidearekin; ez daukat dudarik. Gustuko duzun alorrean lan egitea beti da gustagarri edo denon helburu izan beharko luke. Hala ere, aitoritu beharra daukat gaur egun unibertsitateko irakasle eta aldi berean ikerle izatea oso nekagarria dela.

Unibertsitateko irakasleok, eskolak ematen disfrutatzear gain, ikertzea ere derrigorrezkoa dugu, nolabait esateko oposizio bat ateratzeko bidea da eta sistemak hau eskatzen du, hemendik lortzen baititugu gure meritu profesional eta pertsonalak. Bigarren hezkuntzako irakaskuntzan ere aritu nintzen hasieran, baina berehala ohartu nintzen momentuan bestelako betebeharrak nituela eta horregatik ekin diot ikerketa munduari eta uste dut mendizaletasunari nire hondar alea eskaini arte ekingo diodala.

Nolanahi ere, unibertsitatean eskolak ematea asko maite dut. Aurreko urtean farmaziako fakultatean eta aurtun kiroletako fakultatean, bietan asko disfrutatut klaseak ematen.

4. Nola gogoratzen dituzu ikastolako urte haiek?

Uste dut adibide onenetarikoa ez naizela... hamaika irakaslek pairatu behar izan zituzten nire bihurrikeria guztiak.... Guraso, irakasle, lankide... guztiek pasa behar izan zuten nire bihurrikerietatik... Orain, berriz, ikasleek gozoegia naizela diote, uste dut aurreko garaietara bueltatzen ahalegindu beharko nukeela, ikasle bihurri horiek guztiak kontrolpean izateko.

Ikastolako garaian ere ikasle nintzenean oso exigentea izan ohi nintzen, gurasoek "genetika txar xamarra" eman zidaten eta honen ondorioz gehiago ikasi behar izaten nuen. Beti perfektzioa bilatu ohi nuen. Egun konturatu naiz perfektzio hitza sobran dagoela.

5. Oraindik oso gaztea zara. Zer daukazu bizitzan egiteko? Zein zaletasun dituzu?

Ez da galdera txarra! Esaerak dioen bezala, "gazteak baleki eta zaharrak ahal balu".

Zaletasunen artean jarduera fisikoa egitea bereziki gustatzen zait eta batez ere mendizaletasuna, azkenaldian mendira joateko denbora gutxi dudana arren (ez esatearren ez dudala denborarik). Mendizaletasunak, orografia ezberdineko lekuak ezagutzeaz gain, kanpora irteteko aukera ere ematen du eta beste kultura asko ezagutzeko ere bai. Horrek era berean pertsonalki ditugun ahuleziak agertzea ekar dezake eta horietatik ikastea.

Irakurtzea ere asko atsegin dut, baina tamalez, medizina, fisiologia, biomedikuntza eta dietetika eta nutrizioa monotemak irakurri ohi ditut, batez ere ikerketak. Historia ere oso gogoko dut, izan ere asko laguntzen du historiari errepaso bat emateak, behin eta berriz, lehen eginiko pausoetara bueltatzen gara, baina egoera okerragoan oraindik: ustez asko aurreratu dugulakoan ustez gauza gehiago dakigulakoan oker asko egin ohi ditugu, askotan prepotentzia dela eta.

Bizitzan egiteko, bizitzeko gauza asko daude, norberak erabakitzen du zerk asebetetzen gaituen. Nik ez dut pretentsio handiegirik, izan ere denborarekin ikasi baitut geroan zer izan nahi dugun pentsatu eta gero lortzen ez badugu honek egiten digula min gehien.

Dena dela, uste dut bizitzan gauza nagusi bat egiteke dudala: ingurukoak gehiago maitatu eta eurekin denbora gehiago egotea. Hau lortuko banu, uste dut oso zoriontsu izango nintzatekeela.

6. Zer esango zenieke Haurtzaroko oraingo ikasleei?


Zer esango diet ba, nik bezainbeste bihurrikeria ez egiteko hasteko. Bestetik, jarduera fisikoa zein ikasketekin disfrutatzeko. Hirugarrenik, irakasle petardo bakoitzaren gauzarik onenak hartzeko eta txarrak ez kontuan hartzeko. Eta azkenik, Ikastolaz kanpo, gustatzen zaizuen gai jakinetan ikasten hasteko, izan ere uste dut eskoletan ematen den hezkuntzaz gain, badirela beste gai batzuk, oso garrantzitsuak direnak.

7. Besterik?

Bai. Elkarriketa hau aprobetxatu nahiko nuke esateko, gustatuko litzaidakeela ikastolarekin kolaborazio txiki bat egitea. Tarteka seminarioren bat burutzea, "Elikadura eta Jarduera Fisiko Ohituren" inguruan unitate didaktiko bat prestatzea guraso zein ikasleentzat... Izan ere beharrezkoa jotzen baitut ohitura familia osoan bermatzea eta horretarako beharrezkoa da guraso zein ikasleak, biak batera kontzientziaztea.

Aukera hau irekia uzten dut, beraz: ilusioz egingo nukeen gauza bat da. Uste dut ikerketetan aurkitu ditugun emaitzak eskoletara ere eraman behar direla eta hau izango litzateke nire aukera bat.

Besarkada bat!



Zorionak batxiller berriei!

Desiorik onenak zuentzat Haurtzaro Ikastolaren izenean





Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772



AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



KIRLODEGOTAKO KIDAKETIK
GOSTON INTEGRAL, PULBORTUTSUKI



ELORSING KIRLODEGIA • Euzkadi, 24
T. 943 492 552 • M. 629 751 892
F. 943 490 591 • gezak@telefonosnet
20180 OIARTZUN (Gorria)

txinpart⁵¹

www.haurtzaroikastola.net

